**PASAIAKO UDALA**
www.pasaia.net IFK/CIF P2006900A
Donibane kalea, 19, 20110 Pasaia
Tel: 943 344034 / Faxa: 943 515447
Gizarte Ekintza
Euskadi Etorbidea 27
943 004320
gizartekintza@pasaia.net

# Pasaiako Udaleko profesionalentzako barruko jarduera-protokoloa, haurrak arriskuan edo babes gabezia egoeran daudelako susmoa dagoenerako

Protocolo de actuación interno ante sospechas de situaciones de riesgo y/o desprotección infantil para profesionales del Ayuntamiento de Pasaia

## 1) PROZEDURA:

Administrazioak eta bertan lanean diharduten profesionalek haurrak eta nerabeak babes ditzaten ezinbesteko baldintza da norbaitek arrisku egoerarik eta/edo babes gabezia egoerarik ote dagoen aztertzea eta detektatzea, eta, segidan, eskumena duen administrazioari jakinaraztea.

3/2005 Legean, otsailaren 18koan, Haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa denean, 5. artikuluan honela jasota dago: "Bai agintariek eta zerbitzu publikoek bai herritarrek, batez ere lanbidea edo betetzen duten eginkizuna tarteko haur edo nerabe bat arrisku edo babesgabezia egoera batean egon daitekeela ikusten dutenek, haur edo nerabeari laguntza berehala eskaintzeko betebeharra dute, eta, beren eskumenean badago, jarduteko, edo bestela, eskumena duten agintariei edo haien agente gertukoenei jakinarazteko; orobat, adingabearen legezko ordezkariei jakinarazi behar dizkiete egitateak, edo, beharrezkoa bada, ministerio fiskalari ere bai".

Lege bereko 51. artikuluan zehazten dira jakinarazi beharko liratekeen arrisku-egoerak zeintzuk diren: "*Arrisku-egoerak dira haurraren edo nerabearen garapen pertsonal edo sozialari kalte egin diezaioketen egoerak, babesgabeziatzat jo ezin daitezkeenak eta, hortaz, legeak agindutako tutoretza ezartzea eskatzen ez dutenak. Arrisku-egoera agertuko da, gizartearen, familiaren edo adingabearen beraren gorabeheren ondorioz, adingabearen garapena eta ongizatea mugatuta edo kaltetuta gertatzen badira, eta gurasoek, tutoreek edo zaintzaileek ez badituzte beren gain hartzen haurraren edo nerabearen garapen egokia bermatu ahal izateko erantzukizunak, edo erantzukizun horiek osorik beren gain ez hartzea gerta badaiteke. Betiere, egoera*

## 1) PROCEDIMIENTO:

Para que la administración y los profesionales que trabajan en ella puedan proteger a los niños, niñas y adolescentes, es requisito imprescindible que “alguien” observe, detecte, una posible situación de riesgo y/o desprotección y que además, la ponga en conocimiento de la administración competente.

Tal y como queda recogido en la Ley 3/2005, de 18 de febrero, de Atención y protección a la infancia y adolescencia, en su artículo 50, “*Tanto las autoridades y servicios públicos como las personas físicas, en particular aquellas que por su profesión o función detecten una situación de riesgo o de posible desamparo de un niño, niña o adolescente, tienen obligación de prestar la atención inmediata que la persona menor de edad precise, de actuar si corresponde a su ámbito competencial o, en su caso, de comunicarlo a las autoridades competentes o a sus agentes más próximos; además, deberán poner los hechos en conocimiento de los representantes legales de la persona menor de edad, o, cuando sea necesario, del ministerio fiscal”.*

En el artículo 51 de la misma ley, se define las situaciones de riesgo que habría que notificar; “*Se consideran situaciones de riesgo aquellas que perjudiquen el desarrollo personal o social del niño, niña o adolescente, que no quepa calificar de desamparo y que, por lo tanto, no requieran la asunción de la tutela por ministerio de la ley. Aparece una situación de riesgo cuando el desarrollo y el bienestar de la persona menor de edad se ve limitado o perjudicado a consecuencia de circunstancias de carácter personal, social o familiar y los padres y madres, tutores o guardadores no asumen o pueden no asumir completamente sus responsabilidades para asegurar el normal desarrollo del niño, niña o adolescente. Todo ello, sin que la situación alcance la*

*hori babesgabetasun- egoera bilakatzeko bezain larria ez bada edo haurra edo nerabea familia-gunetik bereizteko adinakoa".*

Horrenbestez, eta labur esanda, adingabekoen babesean, eta Pasaiako haur eta nerabeen eskubideen bermean, guztien oinarrizko beharrak aseta izan daitezen, gurasoek ezina agertzen dutenean edota egoki jokatzen ez dutenean, eta administrazioak esku hartu beharra izaten duenean, baldintza hauek bete behar dira:

- Herritarrak nahiz profesionalak administrazio eskudunari (Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Aldundiko Gizarte Larrialdietarako Zerbitzua, Ertzaintza...) jakinaraziko dio adingabekoa arrisku edo babes gabezia egoeran dagoela.

- Jarraian aipatzen diren egoera hauen guztien jakinarazpena egingo da: a) adingabeko bat arrisku-egoeran dagoelako susmoa dago, b) gurasoek adingabeko bati tratu txarra eragiten diotelako susmoa dago, eta c) adingabeko batek adierazten du gurasoek edo beste hirugarren batzuek tratu txarra eragiten diotela, eta guraso edo legezko arduradunek ez dutela babesten.

- Kasua detektatu eta eskumena duen agintariari jakinarazi ondoren, adingabekoaren guraso edo legezko arduradunei ohartaraziko zaie

*suficiente gravedad como para derivar en desprotección y justificar una separación del núcleo familiar”.*

Por lo tanto, y resumiendo, para poder proteger a las personas menores de edad y garantizar que se cumplen los derechos de los niños, niñas y adolescentes de Pasaia, así como procurar que éstos tengan cubiertas sus necesidades básicas, cuando sus padres no pueden hacerlo o no lo hacen de manera adecuada y tiene que intervenir la administración pública, deben cumplirse los siguientes requisitos:

- Que alguien, ya sea un ciudadano o un profesional, ponga en conocimiento de la administración competente (servicios sociales, Guardia Municipal, Servicio Foral de Urgencias Sociales SFUS, Ertzaintza,…) que una persona menor de edad se encuentra en una posible situación de riesgo o desprotección.

- Que se notificarán, todas aquellas situaciones en las que, a) se tenga sospecha de una persona menor de edad se encuentra en una situación de riesgo, b) hay sospechas de que los padres pudieran estar maltratando a una persona menor de edad y c) cuando un menor, revele estar siendo maltratado por sus progenitores o bien por terceras personas y sus padres o responsables legales no le protegen.

- Una vez detectado el caso y notificado a la autoridad competente, se avisará a los padres o responsables legales de los menores de la acción llevada a cabo.

| | |
|---|---|
| **2) JARDUERA-PROTOKOLOA** | **2) PROTOCOLO DE ACTUACIÓN** |
| **2.1.- EGOERA ARRUNTAK** | **2.1.- SITUACIONES ORDINARIAS** |
| 1. Arrisku-egoera edo babes gabezia egoeran egon litekeen haurraren detekzioa egiten duen profesionalak horren berri emango dio saileko arduradunari, eta jarduten hasiko da, Gizarte Ekintza Sailarekin harremanetan jarrita, ondorengoak zehazteko: | 1. El profesional que detecte una posible situación de riesgo o desprotección infantil informará al/la responsable del Departamento para el que trabaje y éste se pondrá en contacto con el Departamento de Acción Social para: |
| a) Gizarte zerbitzuen jarduketa beharrezkoa ote den zehaztea eta, beraz, jakinarazi behar ote den zehaztea.<br>b) Bi sailetako profesionalen arteko elkarlana bultzatzea, jarduteko estrategia bateratua bultzatzeko.<br>c) Zalantzak argitzea, eta etorkizunean eman beharreko urratsen berri ematea, bai adingabekoarekin, bai familiarekin. | a) Determinar si realmente se trata de un caso de riesgo que precise la actuación de los servicios sociales y, por tanto, de ser notificado.<br>b) Coordinarse entre los profesionales de ambos departamentos para establecer una estrategia conjunta de actuación.<br>c) Aclarar dudas o cuestiones relativas a los pasos a realizar en un futuro, tanto con la persona menor de edad como con la familia. |
| 2. Ustezko arrisku-egoera edo babes gabezia egoera detektatu duen profesionalaren saileko arduradun teknikoak idatziz egingo dio jakinarazpena Gizarte Ekintza Sailari, eta horretarako, 2. eranskineko jakinarazpen-protokoloa erabiliko du. | 2 El responsable técnico del Departamento cuyo profesional haya detectado una posible situación de riesgo y/o desprotección realizará la notificación oficial por escrito al Departamento de Acción Social utilizando para el protocolo de notificación que se recoge en el Anexo 2. |
| 3. Adingabekoaren familiari ezagutzera emango zaio gizarte-zerbitzuei zer jakinarazpen egin zaion, eta argi azalduko zaio zer arrazoik eragin duen berori bideratzea. Atal honi dagokionez, hainbat arlo argitu beharrekoak dira: | 3 Informar a la familia de la persona menor de edad la notificación realizada a los servicios sociales, dejando claro los motivos que han motivado la misma. En este punto se deberán aclarar las siguientes cuestiones: |
| a) Nork eta nola jakinaraziko dion familiari jakinarazpen bat egin dela. | a) Quién y cómo informa a la familia que se ha realizado una notificación. |

| | |
|---|---|
| b) Informazioa emateak adingabekoarengan zer arrisku izan dezakeen, eta informazioa emateko Gizarte Ekintza Saileko profesionalen batek esku hartu behar ote duen.<br>c) Nori jakinarazi behar zaion (gurasoetako bati; bi gurasoei; banaketa edo dibortzioa denean, nola jokatu...) | b) El riesgo que puede suponer para la persona menor de edad ofrecer esa información y si para ello, tiene que estar presente alguna profesional del Departamento de Acción social.<br>c) A quién hay que notificar (a un padre, a los dos, cómo hacer en caso de separación o divorcio…) |
| Familiari argitu behar zaio prozedura baliagarria dela bai familiari, bai adingabekoari laguntzeko, eta, halaber, Gizarte Ekintza Sailak zer baliabide dituen. | Se recomienda clarificar a la familia que se trata de un procedimiento para la ayuda y el apoyo de la familia y la persona menor de edad, tratando de explicar los recursos con los que cuenta el Departamento de Acción Social. |
| Familiari egiten zaion jakinarazpena Gizarte Ekintza Saileko profesionalekin batera egiten bada, ardura duen gizarte-langileak familiari azalduko dio une horretatik aurrera zein izango den abiaraziko den prozedura zehatza. | En el caso de que esta notificación a la familia se realice conjuntamente con las profesionales del Departamento de Acción social, la trabajadora social responsable del caso deberá explicar a la familia el procedimiento que se va a seguir a partir de ese momento. |
| **2.2.- LARRIALDIETARAKO EGOERAK** | **2.2.- SITUACIONES DE URGENCIA** |
| Arratsaldeko 15:00etatik aurrera sortzen diren larrialdietarako gertakariak edo asteburu eta jaiegunetan sortzen diren larrialdietarako egoerak Udaltzaingoari eman behar zaizkio ezagutzera, hark Aldundiko Gizarte Larrialdietarako Zerbitzuari ohartaraz diezaion. | Las situaciones de urgencia que sucedan a partir de las 15.00 horas de la tarde o durante los fines semana o días festivos, se deberán comunicar a la Guardia Municipal quien a su vez avisará a los Servicios Forales de Urgencias Sociales SFUS |